apika
steam laborategia

Teknologia eta Hizkuntza gutxituak

Irakasleentzako gida



Aurkibidea:

Helburu orokorrak	3
Saioak eta iraupena	4
Edukiak	5
Hezitzaileentzako gomendioak	6
Ikasleekin saio bakoitzean erabiltzeko baliabideak	7
1.saioa: Hizkuntza gutxituek ingurune digitalean bizi duten errealitatea ezagutzen	8
2.saioa: Ba al dago alternatibarik eskolako lanetarako?	16
3.saioa: Aisialdian ere teknologia euskaraz	27



Helburu orokorrak

Gida honen helburua

- Hizkuntza gutxituak zer diren ulertzea.
- Hizkuntza gutxituen errealitateaz jabetzea.
- Teknologia jabedun eta libreen arteko ezberdintasuna ezagutzea.
- Ikasleek egiten duten teknologiaren erabilerari buruzko hausnarketa sustatzea.
- Sare sozial digitalen erabilerari buruz hausnartzea.
- Euskarazko alternatiba teknologikoak ezagutzea.

Ikasmaterial hau **Iametza Interaktiboa S.L**.-k sortu du, **Make Irigoien** aholkulari pedagogikoaren laguntzarekin.

Ikasmaterial hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak diruz lagundu du. Material honek aipatutako sailaren onespena du (data).

Saioak eta iraupena

1.SAIOA

Hizkuntza gutxituek ingurune digitalean bizi duten errealitatea ezagutzen

Jarduerak:

1. Zein da hizkuntza gutxituen errealitatea mundu digitalean? *(Denbora: 15 minutu)*
2. Zein dira hizkuntza-desorekaren arrazoiak? *(Denbora: 10 minutu)*
3. Guk, erabiltzaile bezala zer egin dezakegu? *(Denbora: 10 minutu)*
4. Euskal komunitate digitala ezagutzen. *(Denbora: 10 minutu)*
5. Zer ikasi dugu? *(Denbora: 10 minutu)*

2.SAIOA

Ba al dago alternatibarik eskolako lanetarako?

Jarduerak:

1. Nire egunerokoa: hizkuntzen mapa. *(Denbora: 10 minutu)*
2. Ba al dago ikasteko euskarazko softwarerik eta aplikaziorik? *(Denbora: 15 minutu)*
3. Ba al dago euskarazko entziklopediarik informazioa lortzeko? *(Denbora: 10 minutu)*
4. Alternatiben oinarria auzolanean dago. *(Denbora: 10 minutu)*
5. Zer ikasi dugu? *(Denbora: 10 minutu)*

3.SAIOA

Aisialdian ere teknologia euskaraz

Jarduerak:

1. Aisialdian euskaraz aritzen gara? *(Denbora: 15 minutu)*
2. Fedibertsoa: euskarazko sare sozial libreetako alternatiba. *(Denbora: 10 minutu)*
3. Ikus-entzunezko edukia euskaraz kontsumitzeko aukerak ezagutzen. *(Denbora: 10minutu)*
4. Nire euskarazko erreferenteak. *(Denbora: 10 minutu)*
5. Zer ikasi dugu? *(Denbora: 10 minutu)*

Edukiak:

- Alternatiba digitalak
- Erabilera arduratsua
- Internet
- Teknologia burujabetza
- Sare sozialak
- Software librea
- Hizkuntza gutxituak
- Euskara
- Ikus-entzunezko teknologia
- Hizkuntzen teknologiak

Hezitzailearentzako gomendioak

Bloke honetan proposatzen diren jardueren denboralizazioa egokitu daiteke ikasleen ezaugarrien edo interesen arabera. Finean, ikaslearen digitalarekiko duen begirada zabaltzea bilatzen da, bere egunerokoan ohikoak dituenen inguruko ezaugarrien kontzientzia hartzea, beraien diseinuaren logikaz jabetzea eta bestelako alternatibekiko lehen hurbilketa egitea.

Bereziki garrantzitsua izango da ikasleek ulertzea teknologia eta hizkuntzen arteko erlazioa eta, bereziki hizkuntza gutxituek (eta euskarak) mundu digitalen bizi duten egoera. Era berean, saio hauen helburua ere bada, euskarazko tresnak eta alternatibak ezagutaraztea.

Ikasleekin saio bakoitzean erabiltzeko baliabideak

1.SAIOA

Hizkuntza gutxituek ingurune digitalean bizi duten errealitatea ezagutzen

Helburuak:

- Ingurune digitalaren erabilerari buruz hausnartzea.
- Hizkuntzak eta teknologiaren arteko erlazioaz jabetzea.
- Teknologia libreen abantailak ulertzea.
- Alternatiba digital libreen inguruko ezagutza handitzea.
- Euskal komunitate digitala ezagutzea.

Edukiak:

- Ingurune digitala
- Euskara
- Gailu teknologiakoak
- Hizkuntza gutxituak
- Fedibertsoa
- Software librea
- Teknologia burujabetza

Jarduerak

1. Zein da hizkuntza gutxituen errealitatea mundu digitalean? *(Denbora: 15 minutu)*
2. Zein dira hizkuntza-desorekaren arrazoiak? *(Denbora: 10 minutu)*
3. Guk, erabiltzaile bezala zer egin dezakegu? *(Denbora: 10 minutu)*
4. Euskal komunitate digitala ezagutzen. *(Denbora: 10 minutu)*
5. Zer ikasi dugu? *(Denbora: 10 minutu)*

Hezitzailearen gomendioak

Saio honetan, bideoak proiektatu beharko dira.

Hizkuntza gutxituek ingurune digitalean bizi duten errealitatea ezagutzen

Argudiaketa curricularra

0. Sarrera atalean dago argudiaketa curricularraren inguruko informazio guztia.

Jakintzagaia	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak eta loturak KD deskriptoreekin				
		KD 1	KD 2	KD 3	KD 4	KD 5
EUSKARA ETA LITERATURA	2		2.1			
	3		3.1 3.2			
	4	4.1				
	5		5.1			
	6	6.1			6.3	
BALIO ZIBIKO ETA ETIKOAK	1	1.1 1.2				
	2					2.1
TEKNOLOGIA ETA DIGITALIZAZIOA	6					6.1
TEKNOLOGIAKO ETA DIGITALIZAZIOKO HASTAPENAK	5		5.1		5.1	5.1

Saioaren garapena

1– Zein da hizkuntza gutxituen errealitatea mundu digitalean?

(Denbora: 15 minutu)

Hizkuntza gutxitua bazterketa, jazarpena edo debekua pairatzen duen hizkuntza bat da. Prozesu hau kontzienteki sortua eta sustatua izan daiteke, baina era naturalean ere gerta daiteke hiztunek erabiltzeari uzten diotelako, adibidez. Gure inguruan, gertuen dugun hizkuntza gutxitua Euskara da. Inguruko hizkuntza handien ondoan (gaztelania, frantsesa edo ingelesa), desagertzeko arriskuan dago. Euskarak teknologia eta mundu digitalean presentzia izatea ezinbestekoa da bere iraupena, eguneroko erabilera eta prestigioa bermatzeko. Arrazoien artean, bost nagusi bildu ditugu.

Hausnarketarako, jarri 5 pertsonako taldetan:

A) Aukeratu bakoitzak arrazoietako bat eta azaldu gainerako taldekideei.

B) Adostuta, ordenatu bost arrazoiak garrantziaren arabera.

C)Partekatu zerrenda talde handian, eta azaldu zuen argudioak.



1– Zein da hizkuntza gutxituen errealitatea mundu digitalean?

(Denbora: 15 minutu)

Euskarak teknologia eta mundu digitalean presentzia izatea ezinbestekoa da

01 Erabilera-esparru berriak irabaztea biziraupenaren giltza da

Hizkuntza bat bizirik dago nonbait eta noizbait erabiltzen bada. Gaur egungo bizitza gero eta digitalagoa denez, euskarak espazio digitaletan egon behar du: aplikazioetan, adimen artifizialean, sare sozialetan, jokoetan, webguneetan, eta abar. Bertan ez badago, erabiltzaileek beste hizkuntza batzuetara joko dute.

02 Teknologia euskaldunon pentsamoldea eta bizimodua modelatzen ari da

Adimen artifiziala, hizkuntza-eredu handiak (hala nola ChatGPT), eta plataforma digitalak gure modu kolektiboan eragiten ari dira pentsatzeko, komunikatzeko eta ikasteko. Euskarak horietan tokirik ez badu, euskal kultura eta pentsamendua baztertuta geldituko dira, eta gaztelaniaz edo ingelesez soilik emango dira erreferentziak.

03 Hizkuntza ez erabiltzea galtzea da

Teknologiazko interfazeetan (botoiak, mendekotasunak, laguntza-sistemak...) hizkuntza bat erabiltzen ez bada, gizartearen zati bat ahazten edo baztertzen hasiko da. Hori bereziki arriskutsua da belaunaldi gazteen artean, zeinek eguneroko harremanak eta kontsumoa gero eta gehiago euskarazko edukirik gabeko plataformen bidez egiten dituzten.

04 Eskubide kontua ere bada

Euskaldunok eskubidea dugu teknologia gure hizkuntzan erabiltzeko. Hori gabe, teknologia diskriminatzaile bihurtzen da, eta hizkuntza gutxituen hiztunak bigarren mailan uzten ditu. Horregatik, euskara teknologiaren lehen lerroan egoteko lan egitea berdintasunaren eta justizia linguistikoaren aldeko borroka da.

05 Etorkizuna jokoan dago: adimen artifiziala eta datuen borroka

Etorkizun hurbilean adimen artifizialek eta hizkuntza-ereduek erabiltzen dituzten datuak izango dira haien oinarria. Euskarazko daturik gabe, ez dago euskaraz arituko den adimen artifizialik. Eta horrek esan nahi du gure hizkuntza ez dela kontuan hartuko etorkizuneko erabakietan, zerbitzuetan, edota irakaskuntzan.

Sakontzeko, hitz egindako gaiaren inguruan eztabaidatu dezakezue talde handian.

Iturriak:

- EUSKO JAURLARITZA: *Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera sustatzeko plana 2023-2027*, Euskadi.eus. Esteka.
- UNESCO: *Teknologia eta Hezkuntzari buruzko UNESCOren Munduko Hezkuntzaren Jarraipen Txostenaren (GEM 2023 txostenaren) kontsulta Euskal Autonomia Erkidegoan*, Unetxea.org. Esteka.
- WALIÑO, Josu: *Euskara aro digitalean*, Sarean.eus. Esteka.
- EUSKO JAURLARITZA: *Euskararen Ingurune Digitala. Gomendioak 2021-2024*. Euskadi.eus. Esteka.
- WALIÑO, Josu: *Euskararen bizitasun digitala ispiluaren aurrean*, Soziolinguistika.eus. Esteka.

2–Zein dira hizkuntza–desorekaren arrazoiak?

(Denbora: 10 minutu)

Ikusi dugu euskarak iraun dezan eta euskara erabil dezagun beharrezkoa dela euskarak mundu digitalean presentzia izatea. Ez da erraza, ordea. Euskararen presentzia digitala hizkuntza handiena baino txikiagoa da, orokorrean. Ikus dezagun zergatik gertatzen den hau:

A) Ikusi Euskararen Mugak Sarean bideoa (00:00-03:32)

B) Binaka jarri eta erantzun ondoko galdera hauei:

- Multinazionalek badute eraginik mundu digitalean erabiltzen diren hizkuntzetan?
- Euskara hutsean dauden webguneek jar dezakete Google-ren bidezko publizitatea? Zer ondorio du horrek?
- Aipatu euskarazko ikus-entzunezko eduki sortzaileek Youtube edo Twitch plataformetan topa dezaketen arazo bat.
- Gailu eta plataforma guztiak euskaratu daitezke? (instagram, android, X...)
- Zein da desorekarik kezkagarriena, zuen ustez?

C) Talde handian, bikote bakoitzak aipatuko du zer desorekak kezkatzen duen gehiena.

3—Guk, erabiltzaile bezala, zer egin dezakegu?

(Denbora: 10 minutu)

Ikusi dugu euskararentzat egoera ez dela erraza, baina erabiltzaile gisa egiten duguna baino gehiago egin dezakegu, orokorrean.

A) Jarraitu bideoa ikusten 03:33 minututik aurrera.

B) Bideoan, hiru motatako ekimenak aipatzen dira egoerari aurre egiteko. Hauek kontuan hartuta, aipatu labur-labur zure ustez zein bi ekintza diren egingarriak zure egunerokotasunean euskararen egoera digitala hobetzeko:

C) Bi ikaskiderekin partekatu.

Oharra: Ikusi dugunez, erabiltzaileen % 10ek baino gutxiagok dute nabigatzailea edo gailua euskaraz konfiguratua. Horretarako, lehenhitza.eus webgunea erabil dezakezu. Etxean, mugikorretik, tabletatik edo ordenagailutik sartu webgunera eta ikusi nola konfigura dezakezun hizkuntza euskaraz jartzeko, bai gailuena, bai nabigatzaileena.



4–Euskal komunitate digitala ezagutzen

(Denbora: 10 minutu)

Argi dago sarean edukia kontsumitzen dugula (testuak, ikus-entzunezkoak, audioak...). Horregatik, erabiltzaile gisa, gailuak euskaraz konfiguratzeaz gain, euskarazko edukiak eta plataformak behar ditugu euskara mundu digitalean osasuntsu mantentzeko. Ezagut dezagun euskal komunitate digitala eta haren ekimenetako batzuk.

A) Ikusi bideo hau denok batera: Mugikorra euskaraz duzu? Baduzu garaia! (1:25 minututik 7:18ra). Bideo honetan ikusiko dituzue euskarazko proiektu digital batzuk eta euskarak mundu digitalean izandako ibilbidea.

B) Jarri binaka eta bete taula. Horretarako, lehenik eta behin, adostu bien artean zein proiektuk erakarri duen zuen arreta (behar baduzue, bilatu Interneten proiektuaren inguruko informazioa):

Proiektu posible batzuk: Librezale.eus · Euskarazko Wikipedia · AhoTTS · PuntuEus · Egunean Behin · Pantailak Euskaraz · Xuxen · Latxa

Proiektuaren izena	Zertarako balio du? / Zein da helburua?	Noiz sortu da?	Nork sortu du?	Ezagutzen zenuten?	Erabiliko zenukete? Zergatik?

c) Bikote bakoitzak talde osoari berea aipatuta, arbelean zerrenda egin. Komentatu emaitzak.

5– Zer ikasi dugu?

(Denbora: 10 minutu)

Bete ondorengo esaldi hau, gaur ikasitakoarekin:

Euskarak digitalean duen egoeraren inguruan lehen ez nekien _____ orain badakit _____ eta, horren ondorioz, hemendik aurrera, euskara digitalean indartzeko, hau egingo dut: _____

2.SAIOA

Ba al dago alternatibarik eskolako lanetarako?

Helburuak:

- Ingurune digitalaren erabilerari buruz hausnartzea.
- Hizkuntzen eta teknologiaren arteko erlazioaz jabetzea.
- Teknologia libreen abantailak ulertzea.
- Alternatiba digital libreen inguruko ezagutza handitzea.
- Euskararen erabileraren inguruan hausnartzea.

Edukiak:

- Ingurune digitala
- Teknologia librea
- Teknologia burujabetza
- Hezkuntza teknologiak
- Hizkuntza gutxituak
- Euskara
- Software librea
- Entziklopedia askea

Jarduerak

1. Nire egunerokoa: hizkuntzen mapa *(Denbora: 10 minutu)*
2. Ba al dago ikasteko euskarazko softwarerik eta aplikaziorik? *(Denbora: 15 minutu)*
3. Ba al dago euskarazko entziklopediarik informazioa lortzeko? *(Denbora: 10 minutu)*
4. Alternatiben oinarria auzolanean dago. *(Denbora: 10 minutu)*
5. Zer ikasi dugu? *(Denbora: 10 minutu)*

Hezitzailearen gomendioak

Saio honetan, bideoak proiektatu beharko dira eta webguneak aztertu. Horrez gain, Asmazank! tresnaren bidez jolastea proposatzen da. Horretarako, ikasleek gailu bat beharko dute eta jolasa pantaila handian proiektatu beharko da.

Ba al dago alternatibarik eskolako lanetarako?

Argudiaketa curricularra

0. Sarrera atalean dago argudiaketa curricularraren inguruko informazio guztia.

Jakintzagaia	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak eta loturak KD deskriptoreekin				
		KD 1	KD 2	KD 3	KD 4	KD 5
EUSKARA ETA LITERATURA	2		2.1 2.2	2.1		
	3		3.1 3.2			
	4	4.1 4.2				
	5		5.1			
	6	6.1 6.2			6.3	
MATEMATIKA	2		2.2			
	3	3.3				
	6					6.1
BALIO ZIBIKO ETA ETIKOAK	1	1.1 1.2				
	2					2.1
HEZKUNTZA PLASTIKOA, IKUSIZKOA ETA IKUS-ENTZUNEZKOA	1	1.1				
TEKNOLOGIA ETA DIGITALIZAZIOA	1				1.3	
	6					6.1
TEKNOLOGIAKO ETA DIGITALIZAZIOKO HASTAPENAK	6		6.2			

Saioaren garapena

1–Nire egunerokoa: hizkuntzen mapa

(Denbora: 10 minutu)

Eskola izan ohi da euskaraz hitz egiten den testuinguru nagusienetakoa. Zu zeu, momentu honetan euskaraz ari zara ikasten eduki hau. Testuinguruak, familiak, lagunek eta inguruko hizkuntza-ohiturek, ordea eragin nabarmena dute eskolaz kanpoko euskararen erabileran. Ikus dezagun nola erabiltzen duzun euskara zure egunerokoan.

A) Bete taula ondorengo galdera hauei erantzunez:

Galderak	Eskolan	Lagunartean	Etxean (familian)	Sare sozial digitaletan	Podcastak edo Ikus-entzunezko edukia kontsumitzean (Netflix, HBO, Prime, YouTube, Twitch...)
1- Zein da hizkuntza nagusia?					
2- Erabiltzen duzu hizkuntza hori? Zergatik?					
3- Euskara erabiltzen al duzu hor? Noiz bai/noiz ez?					

1–Nire egunerokoa: hizkuntzen mapa

(Denbora: 10 minutu)

B) Bat datoz digitalaren inguruan adierazi dituzun datuak grafiko honekin? Zertan bai? Zertan ez?

Interneteko edo sare sozialetako azken edukiaren hizkuntza.



Iturria:
IKUS IKER: *Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleen ikus-entzunezkoen kontsumoak eta IKTen erabilerak. 2023-2024ko txosten orokorra.*Ikusiker.eus. Esteka.

C) Partekatu 6 ikasleren iritziak talde handian.

2–Ba al dago ikasteko euskarazko softwarerik eta aplikaziorik?

(Denbora: 15 minutu)

Ikastetxean eta gelan euskara erabili ohi dugu. Teknologia ere oso presente dago testuinguru honetan, baina tresna guztiek ez dute euskaraz lan egiteko aukerarik ematen. Enpresa boteretsuek askotan hizkuntza handietan bakarrik eskaintzen dituzte haien jabetzapean dauden tresnak.

Horren aurrean, software librean oinarritzen diren tresnak izan daitezke alternatiba interesgarria; azken batean, eskuratu ondoren, erabili, kopiatu, aztertu, moldatu eta banatu daitekeen softwarea dutenez, garatzaileek euskarara itzuli ditzakete.

A) Launaka jarri eta aztertu ondorengo bi webgune hauetan eskolako lanetarako euskarazko tresna libreak:

- Librezale - Hezkuntza
- Luberri Linux - Kit Digital Askea

2–Ba al dago ikasteko euskarazko softwarerik eta aplikaziorik?

(Denbora: 15 minutu)

B) Bete ondoko taula bertan topatutako informazioarekin:

Tresna	Zertarako balio du?	Instalatu behar da edo on-line dago?
Nextcloud		
Luberri		
Minde		
EuskalBar		
Gimp		

C) Bateratu informazioa talde handian.



3–Ba al dago euskarazko entziklopediarik informazioa lortzeko?

(Denbora: 10 minutu)

Ikusi dugu euskarazko hainbat tresna balia ditzakegula ikasteko zein eskolako lanak egiteko. Egunero egiten dugun ataza bat informazioa bilatzea da. Ba al dago euskaraz informazioa biltzen duen ataririk? Noski baietz!

Ziur behin baino gehiagotan erabili duzula Interneten euskarazko edukien iturri nagusienetako bat den Wikipedia, entziklopedia askea. Wikipedia entziklopedia libre eta kolaboratibo bat da, non edonork parte har dezakeen edukiak sortuz eta eguneratuz. Ezagutza librea partekatzen du.

Datu batzuk: [1]

- Euskarazko Wikipedia 2001. urtean sortu zen.
- Gaur egun, batez beste, ia mila euskal wikilariz osaturiko komunitatearen borondatzeko lanari esker, euskarazko Wikipediak ia milioi erdi artikulu ditu hilero.
- Egun, Wikipedia 356 hizkuntzetan dago. Artikulu kopuruaren arabera, euskarazkoa 32.a da.
- Wikipedia Wikimedia fundazioaren proiektu bat da eta beste batzuekin elikatzen da: Wikidata, Commons eta abar.

1 Iturriak:
WIKIMEDIA: *List of Wikipedias*, Wikimedia.org. Esteka.

WIKIMEDIA: *Wikimedia Statistics*, Wikimedia.org. Esteka.

3–Ba al dago euskarazko entziklopediarik informazioa lortzeko?

(Denbora: 10 minutu)

Esan bezala, Wikipedia wikilariak izeneko bolondresek bultzatutako proiektua da eta denok jar dezakegu gure aletxoa. Euskaraz, gainera, egistasmo propioa du: Txikipedia, gaztetxoentzako Wikipediaren bertsio egokitua. Ezagutzen duzu? Guztira ia 9.000 artikulu ditu Txikipediak:



Iturria: Txikipedia

3–Ba al dago euskarazko entziklopediarik informazioa lortzeko?

(Denbora: 10 minutu)

A) Binaka jarri eta konparatu Wikipedia eta Txikipediako bi artikulu hauek:

- Wikipedia - Euskara
- Txikipedia - Euskara

B) Talde handian komentatu bien artean aurkitu dituzuen hiru ezberdintasun nabari. Baita Wikipediari buruz ikasi duzuen daturik interesgarriena.

Sakontzeko...

Iradokizuna: Atal honetan, ariketa moduan, Txikipedian idazteke dagoen artikulu bat sortu dezakezue klasekideok. Horretarako, azalpenak webgune honetan topatuko dituzu.

4—Alternatiben oinarria auzolanean dago

(Denbora: 10 minutu)

Komunitatean eta auzolanean oinarritutako proiektuak beharrezkoak direla ikusi dugu. Adimen Artifizial Sortzaile bidezko tresnak erabili ohi ditugu, ahots-sintetizazio-sistema bidezkoak etab. Adibidez, Siri edo Alexa. Hauek denak hizkuntza gutxituetan erabiltzeko, dakigunez, aukera murritzagoak eskaintzen dituzte. Honen aurrean Common Voice ekimen bat dago abian euskaraz. Honen izena Gaitu da.

A) Bideo honetan ikus dezakezu zer den. Ikusi dugunez, proiektu honen bidez teknologiari euskara irakatsi diezaiokegu, Guztion artean sortzen ari garen ahotsen datu-basea, gero enpresa guztiek erabili ahal izango dute euskarazko tresna eta aplikazio berriak sortzeko.

B) Zure ekarpena egiteko prest? Sartu gaitu.eus webgunean “Eman zure ahotsa” atalean klik egin eta aukeratu zer nahi duzun egin:

1. Zure ahotsarekin 5 esaldi irakurri. (Mikroa eta inguru lasaia beharko duzu)
2. Beste batzuen 5 grabaketen kalitatea baloratu. (Aurikularrak beharko dituzu ondo entzuteko)
3. Besteek grabatzeko esaldiak proposatu idatziz.

Iturria: Gaitu

5– Zer ikasi dugu?

(Denbora: 10 minutu)

Gaur ikasitakoa frogatzeko, askotan Kahoot bezalako tresnak erabiltzen dira eskolan. Ba al zenekien Kahooten euskarazko alternatibarik badagoela?

Asmazank! Izeneko web aplikazioak, galdera-erantzunetan oinarritutako lehiaketak egiteko aukera ematen du.

Sartu webgunean eta lehiatu "Digitalizazio Arduratsua – Teknologia eta hizkuntza gutxituak" atalean, ea nork ikasi duen gehien gai honi buruz. Zorte on!

Iturria: Asmazank.

Irakaslearentzako esteka (jokoaren moderatzailea)

Ikasleentzako esteka (jokalariak)

3.SAIOA

Aisialdian ere teknologia euskaraz

Helburuak:

- Alternatiba teknologiko burujabeak ezagutzea.
- Sare sozialen funtzionamendua hobeto ulertzea.
- Hizkuntza eta teknologiaren arteko erlazioa ulertzea.
- Ikasleek egiten duten sare sozialen erabileraren inguruan hausnartzea.

Edukiak:

- Ingurune digitala
- Teknologia librea
- Teknologia burujabetza
- Sare sozialak
- Fedibertsoa
- Komunitate digitala
- Euskara

Jarduerak

1. Aisialdian euskaraz aritzen gara? *(Denbora: 10 minutu)*
2. Fedibertsoa: euskarazko sare sozial libreetako alternatiba. *(Denbora: 10 minutu)*
3. Ikus-entzunezko edukia euskaraz kontsumitzeko aukerak ezagutzen. *(Denbora: 10 minutu)*
4. Nire euskarazko erreferenteak. *(Denbora: 15 minutu)*
5. Zer ikasi dugu? *(Denbora: 10 minutu)*

Hezitzailearen gomendioak

Saio honetan Zer Non Ikusi webgunean nabigatzeko aukera izan beharko dute ikasleek.

Aisialdian ere teknologia euskaraz

Argudiaketa curricularra

0. Sarrera atalean dago argudiaketa curricularraren inguruko informazio guztia.

Jakintzagaia	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak eta loturak KD deskriptoreekin				
		KD 1	KD 2	KD 3	KD 4	KD 5
EUSKARA ETA LITERATURA	2		2.1 2.2	2.1		
	3		3.1 3.2			
	4	4.1 4.2				
	5		5.1			
	6	6.1	6.2		6.3	
MATEMATIKA	2		2.2			
	3	3.3				
	6					6.1
BALIO ZIBIKO ETA ETIKOAK	1	1.1 1.2				
	2					2.1
HEZKUNTZA PLASTIKOA, IKUSIZKOA ETA IKUS-ENTZUNEZKOA	3		3.1			
TEKNOLOGIA ETA DIGITALIZAZIOA	1	1.1				
	6				6.1	
TEKNOLOGIAKO ETA DIGITALIZAZIOKO HASTAPENAK	5		5.1		5.1	5.1

Saioaren garapena

1–Aisialdian euskaraz aritzen gara?

(Denbora: 10 minutu)

Gazteen Euskal Behatokiaren ikerketa batean, 15 eta 19 urte bitartekoen artean % 85,2k euskaraz nahiko ondo edo oso ondo hitz egiten dutela adierazi dute.
Sare sozialen erabilerari dagokionez, ordea, % 36,2k sare sozialetan euskara erabiltzen dutela esan arren, gehiago dira gaztelania edo ingelesa erabiltzen dutela dioten gazteak (% 96,2 eta % 45,4, hurrenez hurren).
Jakin badakigu, beraz, euskaraz, baina ez dugu komunikazio-tresna bezala erabiltzen.

A) Hausnartu lauko taldetan:

- Zuek sareetan zein hizkuntza erabiltzen duzue? Zergatik?
- Edukia sortu edo kontsumitzerako garaian baduzue hizkuntza ezberdintasunik? Hau da, TikToken bideoak hizkuntza batean ikusten dituzu eta zuk bideo bat igotzerakoan beste hizkuntza bat erabiltzen duzu?
- Zein hizkuntzatan hitz egiten dute zure lagunek sareetan?
- Eta zure erreferenteek? (eduki sortzaileak, influencer-ak...)

B) Bat datoz zuen iritziak taula honekin?

Zer hizkuntza erabiltzen dituzu normalean sare sozialetan? (%)*

(hizkuntza bakoitza erabiltzen dutenen %)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Gaztelania	99,7	98,0	97,3	96,8	98,9	96,9
Ingelesa	59,5	67,4	54,1	62,9	68,8	60,7
Euskara	38,7	49,3	39,9	31,0	44,2	41,8
Beste hizkuntza batzuk	13,4	15,2	10,9	13,0	11,8	14,3

**Pertsona bakoitzak erabiltzen dituen hizkuntza guztiak aipatu ditu*

Iturria:
GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA: *Gazteak eta sare sozialak 2023*, euskadi.eus. Esteka

1–Aisialdian euskaraz aritzen gara?

(Denbora: 10 minutu)

C) Bateratu ondorioak talde handian.

2–Fedibertsoa: Sare sozial libreetarako euskarazko alternatiba

(Denbora: 10 minutu)

Gazteen artean, gehien erabiltzen diren sare sozialetako batzuk Instagram, TikTok, BeReal edo X dira. Ziur ezagutzen dituzula. Horiek guztiak sare sozial jabedunak dira. Ikertzen baduzu, konturatuko zara sare horiek guztiek ez dutela euskarazko bertsiorik eskaintzen.

Interfazea (erabiltzaile batek gailu edo programa batekin harremana izateko erabiltzen duen azalera edo "aurpegia") ez dago euskaraz. Adibidez, "Like", "Share", "Settings", “Follow” bezalako kontzeptuak ohikoak iruditzen zaizkigu gure egunerokotasunean. Sare sozial gehienek ez dute oraindik euskara ofizialki eskaintzen interfazetan, baina erabiltzaileek gero eta gehiago sortzen dute edukia euskaraz, eta hori funtsezkoa da hizkuntzaren presentzia areagotzeko.

Hala ere, badira interfazea euskaraz duten sareak ere. Software librean oinarrituako sareak dira, Euskal Fedibertsoaren parte direnak. Esteka horretan topa ditzakezu euskarazko sare alternatiboak. Hainbat motatako sareak daude: blogak, liburuak, argazkiak, mikroblogak...

A) Jarri launaka eta aukeratu denen artean sare sozial bat euskal **fedibertsoa.eus** webgunean bilaketa eginez: labur-labur azaldu zein den, zertarako erabiltzen den eta sarearen ezaugarriak.

B) Partekatu hitz egindakoa gelakide guztiekin

Iturria: ZU ZEU

3–Ikus–entzunezko edukia euskaraz kontsumitzeko aukerak ezagutzen

(Denbora: 10 minutu)

YouTube, Twitch edota TikTok bezalako sareetan gehien kontsumitzen den eduki mota ikus-entzunezkoa da, hau da, bideoa. Eduki sortzailea asko eta asko dago edozein gairen inguruan (bideojokoak, moda, teknologia...) hitz egiten dutenak. Askotan ez da hain erraza, ordea, hainbeste edukiren artean, euskarazko edukia kontsumitzea.

Horretarako sortu da Zer Non Ikusi plataforma. Bertan euskarazko film, telesail, bideo eta formatu ezberdinetako edukia biltzen da.

Zer Non Ikusi

Iturria: Zer Non Ikusi

A) Jarri 2-3 pertsonako taldetan eta orrian topatutako edukiarekin, bete ondorengo taula hau:

Kategoria	Ikusi nahi dugun edukia	Non ikus daiteke?	Zergatik aukeratu dugu?
Filma			
Dokumentala /kontzertua			
Youtubeko edukia			
Seriea			

3–Ikus–entzunezko edukia euskaraz kontsumitzeko aukerak ezagutzen

(Denbora: 10 minutu)

B) Partekatu hautatutako edukia gelakideekin eta eztabaidatu:

1. Edukia normalean euskara ez den beste hizkuntza batean ikustera ohituta zaudete? Zergatik?
2. Ezagutzen zenuten Zer Non Ikusi?
3. Tresna baliagarria da? Zertarako?
4. Erabiliko zenukete egunerokotasunean euskarazko eduki gehiago kontsumitzeko? Zein abantaila du? Zein oztopo? Zergatik?



4. Nire euskarazko erreferenteak

(Denbora: 15 minutu)

Film, serie eta dokumentalez gain, influencer edo eduki sortzaileek sortutako bideoak ere kontsumitzea ohikoa da sareetan. Pertsona hauek milaka eta milaka jarraitzaile izaten dituzte sareetan. Zuk ere jarraitzen dituzu influencer-ak? Zerrendatu sareetan jarraitzen dituzun 5 eduki sortzaile:

1

2

3

4

5

A) Hauetako zenbatek igotzen dute edukia euskaraz?
B) Zergatik jarraitzen dituzu?
C) ***Zer Non Ikusi*** tresnak eduki sortzaileen katalogoa ere badu. Bertan, euskarazko edukia argitaratzen duten "influencer"-ak topa ditzakezu. Begiratu nor diren, zer argitaratzen duten eta bat aukeratu. Partekatu zerrenda eta *Zer Non Ikusi* ataritik hautaturiko eduki sortzailea beste gelakideekin. Arrazoitu hautaketa.

4. Nire euskarazko erreferenteak

(Denbora: 15 minutu)



Iturria: Zer Non Ikusi

Zuk imajinatu duzu noizbait eduki sortzaile izatea? Tarte batez, jarri zaitez influencer baten azalean eta pentsatu zer edukiren inguruan egingo zenukeen bideo bat euskaraz (marrazkiak, jolasak, tutorial bat, abestiak...).

Ariketa orri honetan ideia garatu:

Zure kanalaren izena	Zein izango litzateke zure gaia?	Zer eduki egingo zenuke?	Nori zuzenduta?

Sakontzeko...

Aukera osagarria: bideo baten gidoi labur bat idaztea edo miniatura bat marraztea.

5. Zer ikasi dugu?

(Denbora: 10 minutu)

A) Gaurko saioan ezagutu dituzun euskarazko tresna guztietatik zein egin zaizu deigarriena?

B) Zure egunerokotasunean erabiliko zenuke? Zein abantaila ditu zure ustez? Zer lortuko zenuke horri esker pertsonal mailan? Eta sozialki?